



Familia agurgarriak,

Azaroaren 25a **Emakumeen aurkako Indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna** da eta, hori dela-eta, Urola Kosta eskualdeko ikastetxeek eta udalek, elkarrekin, mezu bat zabaldu nahi dugu indarkeria matxistaren kontra eta tratu onen alde.

Horretarako, bide hauek erabiliko ditugu Orion:

- Ikastetxeetan gaia lantzen ari gara, maila bakoitzari dagokion eran.
- Bi ikastetxeetako hurrek gaiari buruzko kartelak prestatuko dituzte klasean eta ikusgai jarriko dituzte herriko denda, taberna eta establezimenduetan.
- **Azaroaren 25ean**, ostiralarekin, **elkarretaratzea** egingo dugu bi ikastetxeetako ikasle, irakasle eta gurasoek Herriko Plazan, **11:30ean**. Udalak ere babesten du elkarretaratze hori. Bertan parte hartuko dute bi eskoletako LH1etik DBH4ra bitarteko ikasleek eta irakasleek. **Etortzeko modua daukazuen gurasoak ere ongi hartuak izango zarete.** Egun horretan **ikasleek zerbait morea jantzita** ekartzea eskatzen dizuegu.
- Ekitaldian gaiari buruzko adierazpena irakurriko dugu eta, ondoren, egunerako propio sortutako bertso batzuk kantatuko ditugu elkarrekin.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu gurasoei, alde zuzenetik, tratu onen aldeko mezua zabaltzen laguntzeagatik.

Orio, 2022ko azaroaren 18a